Frédérique Audoin-Rouzeau, Fred Vargas luma izenez, historialaria eta eleberrigilea da. Historia ikasketak egin zituen eta arkeozoologian espezializatu zen, hau da, inguru arkeologikoetan agertzen diren animalien aztarnen ikerketan. Horri loturik, 2003an Izurri Beltzari buruzko saiakera zientifikoa idatzi zuen, *Les Chemins de la peste, le rat, la puce et l'homme*. Bere formakuntzaz aritzean, etxeokak ditu maiz ahotan: aita Philippe Audoin du, idazle surrealista; ahizpa bikiarengandik hartu zuen abizena, Jo Vargas pintorea bera; eta anaia ere historialaria du, Stéphane Audoin-Rouzeau, Lehen Mundu Gerran espezialista. Ezkerreko militante eta alderdi ekologisten alde atera izan da publikoki. Ibilbide literarioari dagokionez, 1986an argitaratu zuen lehen polizia eleberria, *Les Jeux de l'Amour et de la Mort*, Cognac Jaialdian saritu zutena. Ordutik, hamarnaka eleberrri beltz argitaratu ditu, Jean-Baptiste Adamsberg komisarioaren seriea izanik ezagunena, eta komikietarako gidioak ere egin ditu.




Baztango Udala



EUSKAL NOBELA BELTZAREN ASTEA

Euskal Herrian literatura beltza sustatzeko VI. (H)ilbeltza bekaren irabazlea



## GUDARI ELI GALLASTEGIREN LORRATZA

Nerea Azurmendi Zabaleta

URTARRILA  
2024

Abertzaletasunaren sorreraren eta bilakaeraren inguruan hitz egitean, nahitaez agertzen den izena da Elias Gallastegi Uriarte, *Gudari*. xx. mendeko lehen hamarkadetan munduan kokatzeko modu berri bat ekarri zuen abertzaletasunaren oinarriak jarri zituzten horien artean, ordea, gutxik eragin du hark besteko ikuspegi kontrajarririk, miresmenetik arbuioraino, bai eta iritzi-emaile berberen ahotan ere, unearen arabera. Familia nazionalistan jaioa, Gudari oso gazterik hasi zen nabarmentzen Arana Goiri anaiek sorturiko mugimenduan, nahiz eta ez zuen kargu instituzionalik nahi izan, eta alderdi barrukoetan ere gutxitan ibili. Hil zenetik 50 urte igaro diren honetan, Gallastegiren ibilbidea berregin eta iritzi askotariko horiek biltzen dira, eta orobat aletzen dira 1936.aren aurreko nazionalismo erradikalaren –non erabatekoa eta onartua den Gallastegiren lidergoa– eta iragan mendeko 50-60ko hamarkadetan ernamuntzen hasi zen ezker abertzale independentistaren

### BIOGRAFIA

ISBN: **978-84-19319-94-4**  
ORRIALDEAK: **156**  
FORMATUA: **11 x 16**  
PREZIOA: **14,00 €**

ABERTZALETASUNA

MEMORIA HISTORIKOA

BIOGRAFIA

INDEPENDENTISMOA

- Elias Gallastegi Uriarte, ezizenez *Gudari* (Bilbo, 1893-Donibane Lohizune, 1974), euskal politikari abertzale eta jeltzale independentista izan zen, eta 1936. urtearen aurreko nazionalismo erradikalaren lidergoa izan zuen.
- Hil zenetik 50 urte igaro diren honetan, miresmena eta bazterketa, bietatik jaso du Elias Gallastegik; nolahi den, eztaba da bere pamera abertzaletasunaren sorreran eta lehen hamarraldietako bilakaeran.
- Nerea Azurmendi kazetariak Gallastegiren bizitza eta ibilbidea berregin ditu liburu labur eta bizian, garaiaren kronika bat osatzearekin batera.



### NEREA AZURMENDI ZABALETA (Legazpi, 1961)


Kazetaria da. *Deia* eta *El Diario Vasco* egunkarietan lan egin du, eta beste zenbait hedabiderekiko kolaboratu. Komunikazioaren arloan eta irakaskuntzan ibili da halaber urte askoan.

### GAIARI BURUZKO BESTE LIBURU BAT:



**txalaparta**

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus  
www.txalaparta.eus



## IRIS 22

Yurre Ugarte  
Julen Ribas

URTARRILA  
2024

Kateaturiko hondamendi multzoen ondotik, xxii. mendean, *Numun* gizartea sortu dute kokaleku ezezaguneko ir-  
lan, landare luminiszenteen argitan. Iraganetik kutsadura, plastikoak eta liburu batzuk besterik ez zaie iritsi. Greta Kik ezkutatu egiten du eguzki haziak dituela malkoetan, *sunin-  
sider* deitzen duten horietako bat dela. Baina Max Serekin eraiki du loetxea, eta ezinezkoa zaio sekretua gordetzen ja-  
rraitzea. Max Sek hura bezalako guztiekin esperimenduak egin nahiko ditu, eta Greta beldur da, atzera hondamendi-  
ra itzuliko ote den beldur. Batzuk arbasoen ondare natural eta kulturala berreskuratzen eta gordetzen saiatzen diren bitartean, beste batzuk bizitza luzatzeko asmakizunean da-  
biltza, post-hondamendiko salbatzaile asmoz; eta, tartean, Iris umea, haur jolasetan. K.o. xiv. mendean Dante Alighie-  
rik idatzitako *Jainko antzerkiaren* pasarteek protagonista interpelatzen duten bezala, irakurlea ere ez da epel gera-  
tuko hondamendiak utzitako arrastoei segika.

### KOMIKIA

ISBN: **978-84-19319-81-4**  
ORRIALDEAK: **116 (ggb)**  
FORMATUA: **21 x 28 mm**  
PREZIOA: **22,00 €**

- Komiki arrakastatsuen egileek beren trebeziak uztartuz sortu dute: Yurre Ugarte (*Joana Maiz*) eta Julen Ribas (*Santa Familia* eta *Azken garaipena*, biak ala biak Euskadi sariaren irabazleak Haur eta Gazte Literatura kategorian).
- Egun antzeman daitezkeen krisiak eta arrakalak hondamendi bihurtu eta XXII. mendean kokatzen dute istorioa, desolazioaren osteko gizarte batean.
- Auzi etikoak trumilka agertzen dira istorioaren azalari hazka egitearekin bakarrik, eta ilustrazio bizi eta errealistak irudimenaren osagarri dira.



#### JULEN RIBAS

Arrasate, 1981.


Txikitatik erakutsi zuen marrazketa eta arte ederretarako dohaina. Batxilergo zientifiko-teknikoa egin zuen eta 1999an Bartzelonara joan zen Arte grafikoak ikastera. Garai hartan murgildu zen komikiaren munduan; aurretik *Tintin* eta *Asterix* eta *Obelix*, beste erreferentziarik ez baitzuen. Ikasketak bukatzean, sorterrira itzuli eta *freelance* jarri zen, eta ordutik ilustratzaile lanetan aritu da, gehienbat Euskal Herriko eta Frantziako Estatuko argitaratzaileentzat. Bere lan ugarien artean, komiki hauetako ilustrazio lana aipa daiteke: Eider Rodriguezen *Santa Familia* eta Iban Zalduaren *Azken garaipena*, biak ala biak Euskadi Sariaren irabazleak Haur eta Gazte Literatura kategorian.



#### YURRE UGARTE


Tolosa, 1965.

EHUn kazetaritzan lizentziatu eta gero, buruz behera egin zuen jauzi fikziora. Ordutik, hamaika telesailen sortzaile, gidolari edota editore izan da, eta narrazio bildumak, marrazki bizidunetako filmak, antzezlanak eta haur-gazteentzako liburuak idatzi ditu. *Joana Maiz* nobela grafikoa eta *Katu Hegoduna* komikia argitaratu zituen, Joseba Larratxeren marrazkiekin. *Lilurabera* narrazio bilduma da argitaratu duen azken literatur lana.



**txalaparta**

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus  
www.txalaparta.eus



## MESFIDA ZAITEZ

Bea Salaberri

MARTXOA  
2024

Laurendia gazteari mesfidatzeko esaten diote. Esaten dio aitak, esaten diote adiskideek, bai eta, azkenean, bere buruak ere. Nafarroa Behereko landa eremu batetik Baionara ikastera joanda, inguruarekin batera aldatuko zaizkio jakin nahiak, piztuko kontzientzia politikoa eta sortuko ordura arte bururatu ere egin gabeko zalantzak. Horrela, ETA erakundearen laguntza sarean hasiko da, fardelak batera eta bestera eramaten lehenik, bere etxean kideak aterpetzen gero. Laurendiaren istorioa kontatzen bazaigu ere, historia kolektiboa baita hau, garai nahasi eta oposizioz betean hamaika emakume aritu baitira, ezkutuan eta espanturik gabe, engaiamenduaren sarean.

### ELEBERRIA

ISBN: 978-84-19319-87-6  
ORRIALDEAK: 408  
FORMATUA: 12 x 19  
PREZIOA: 20,00 €

EUSKAL HERRIA

GATAZKA

ABERTZALETASUNA

- Borroka armatuaren ezohiko ikuspegi bat ematen du eleberriko protagonistaren eskutik: babes eta laguntza sarean ibilitako emakumeena.
- Memoria kolektiborako balioko duen eleberririk indartsu bat harilkatu du, fikzioa eginez errealitateari komeni bezain hurbiletik segituta.
- Autoreak, aurretik, *Baionak ez daki* (Susa, 2015) helduentzako ipuin liburua argitaratu du, bai eta *Oihenartea ez da hunki* (Elkar, 2023) eta *Baiona* (Elkar, 2019) helduak euskalduntzeko liburuxkak ere. Hau du lehen eleberria.




### BEA SALABERRI

1979 Donamartin (Nafarroa Beherea) sortu zen, eta han iragan zituen haur eta gazte denborak. Euskal filologia ikasketak egin zituen Baiona eta Bordeleko unibertsitateetan. Helduen euskalduntzearen alorrean lan egiten du, euskara irakasle eta didaktikari gisa, iparraldeko AEK-n. Bestalde, gustuz parte hartu izan du hainbat ekimenetan, hala nola kultur elkarte, antzerki talde eta aldizkaritako kolaboraziotan. Idazketan, *Baionak ez daki* (Susa, 2015) helduentzako ipuin liburua argitaratu du, bai eta *Oihenartea ez da hunki* (Elkar, 2023) eta *Baiona* (Elkar, 2019) helduak euskalduntzeko liburuxkak ere.



txalaparta

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus  
www.txalaparta.eus



# HAN EGON ZEN

## JOSE LUIS ELKORO, BIZITZA BETE BAT

Mikel Zubimendi

APIRILA  
2024

Batzuetan, pertsona baten biografiaren bidez azal liteke herri baten historia garaikidea, pertsona horren bizitzak herri baten hainbat mugarrarekin bat egiten baitu. Batzuetan, mugarri horiek josten dituen hariatako bat izan daiteke pertsona bera, historia osatuko duten puntada bakoitzean agertzen baitzaigu. Jose Luis Elkororen ibilbidetan halaxe gertatzen da; puntadaz puntada, erabakiz erabaki eta gertakariz gertakari, haren biziarioak bat egiten du Euskal Herriak bizi izandako une esanguratsu askorekin: ikurrinaren legeztapena, Alkateen mugimendua, lantegien euskalduntzea, Xibertako eta Zuricheko bake negoziazioak, Egin egunkariaren sorrera eta itxiera... Bere aurkako erasoak eta espetxealdiak gorabehera, apal eta konpromiso handiz jardun da inurri lanean, betiere Euskal Herri euskalduna, burujabea eta askea helburu.

### BIOGRAFIA

ISBN: 978-84-10246-01-0  
ORRIALDEAK: 256 or.  
FORMATUA: 13,5 x 21,5  
PREZIOA 18,00€

BIOGRAFIAK HISTORIA MEMORIA HISTORIKOA

POLITIKA EUSKAL POLITIKA



- Orain dela bi urte, Bergarako Udalak eta Olaso Dorrea fundazioak Monzon-Ganuz saria eman zieten Mari Karmen Aiausti eta Jose Luis Elkorro senar-emazteei, euskararen eta Euskal Herriaren alde egindako lanagatik. Biografia honek ere aitortza kutsu bera du.
- Zehazki Elkororen bizitza kontatzen duen arren, hainbat ahots jaso ditu Mikel Zubimendi kazetariak, biografiaz harago egiten duen garai baten kontaketa eginez.
- Atal bakoitzarekin loturiko argazki bat ere badakar, lekukotza grafiko modura.



### MIKEL ZUBIMENDI BERASTEGI

(Bergara, 1969) kazetaria da. Bere ibilbide profesionala *Gara* egunkariko Iritzia sailean hasi zuen 2010. urtean. *Josu Muguruza, balek hondatu ez zuten ametsa* liburua argitaratu zuen 2014an, Iñaki Altunarekin batera. Egun, *Gara* egunkariko erredaktorea da, eta bere artikuluak, besteak beste, "Gaur8" eta "Zazpika" gehigarrietan argitaratzen dira.

### ERLACIONATUAK:



**txalaparta**

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus  
www.txalaparta.eus

APIRILA  
2024

## HERRIAK DU GEHIEN AGINTZEN

Raquel Varela eta Robson Vilalba (ilus)



Jose hirurogeiko hamarkadako Lisboako periferian hazi zen; Novo Estatuko azken urteen lekuko izan zen, bere lagun gurusoak Afrikako gerrara abiatzen ikusi zituen, 1967ko uholdeen biktimei babesa ematen parte hartu zuen eta herrialdetik kanpoko ideia politiko eta intelektualekin, liburuekin, filmekin eta musikarekin harremanetan jarri zen, askotan ezkutuan. Gaztaroan, borroka antifaxistaren garapenaren, zapalkuntzaren, esku hartzeko musikaren rolararen, Vilar de Mouroseko jaialdiaren eta 1974ko erregimenaren erorketaren lekuko izan zen. Soldadu gisa, ezker militarreko sektore aktiboenetako bat izango da, erradikalismoa, desobedientzia eta esku-hartze iraultzailea pertsonifikatuz.

Raquel Varela eta Robson Villalbaren eskutik, denboran zehar bidaiatu genuen apirilaren 25eko iraultzaren aurreko urteetara eta ondoren etorri zirenetara, eta garai hura gaztaroaren intentsitatearekin bizi izan zuen norbaiten historia erdi fikzionatua ezagutu genuen.

### KOMIKIA

ISBN: 978-84-10246-06-5  
PÁGINAS: 176  
FORMATO: 170 x 240  
PVP: 22,00 €

HISTORIA

MEMORIA HISTORIKOA

PORTUGAL

IRAULTZAK

ILUSTRATUAK

- Krabelinen iraultzaren 50. urteurrenean, Bertrand, Verso, Manifest Llibres eta Txalaparta argitaletxeek *El pueblo es quien más ordena* komikia argitaratu genuen aldi berean, lau hizkuntza ezberdinetan.
- Gaian aditua den Raquel Varela historialariak idatzi eta Robson Vilalbak ilustratutako komiki honek gertakizunak herriaren ikuspuntutik ezagutarazten ditu eta iraultzan behetik parte hartu zutenen esperientzien garrantzia ulertzen laguntzen du.
- 1974-75 Varelaren *História do Povo na Revolucao Portuguesa* saiakeran oinarritutako lana, Portugalgo Iraultzari buruzko erreferentziatzeko lana, hainbat hizkuntzataraz itzulua izan dena.



#### RAQUEL VARELA

1978, Cascaes  
Portugalgo historialaria da, unibertsitateko irakaslea, Lisboako Unibertsitate Berriko eta Amsterdamgo Gizarte Historiaren Nazioarteko Institutuko ikertzailea. Lanaren historian, lan-baldintzetan, langile-mugimenduan eta XX. mendeko Europako historian espezializatu zen. Hainbat liburu argitaratu ditu, eta horien artean Portugalgo iraultzaren historia nabarmentzen da (*Historia do Povo na Revolucao Portuguesa - 1974-75*).




#### ROBSON VILALBA

Gizarte Zientzietan lizentziatu zen Londresko Estatu Unibertsitatean (UEL), eta Soziologian masterra egin zuen Paranako Unibertsitate Federalean (UFPR). Umorezko erreportajeak argitaratu ditu *Folha de S. Paulon*, *Le Monde Diplomatique* Brasilen eta *Gazeta do Povon*. 2014an Vladimir Herzog Kazetaritza eta Giza Eskubideen Saria jaso zuen. *Notas de un tiempo silenciado* (Besouro Box, 2015) komikiaren egilea da, Brasilgo diktadurari buruzkoa. 2020an "Quando o corona vai embora?" saileko komikiak argitaratu zituen Elefanteren sareetan. (Noiz joango da koroa?), artistak bere alabarekin berrogeialdian izandako harremana islatzen duena.



txalaparta

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eu  
www.txalaparta.eu



## XOMORROAK

Julià Guillamon  
Itzaurrea: Martin Rezola

2024  
MAIATZA

Ipuin-bilduma, eleberria eta saiakera literarioa nahasten diren eremu lausoan, liburu bakan honek orainaren eta iraganaren arteko harremanak kontatzen eta esperantzaren eta memoriaren arteko hariak josten ditu. Hiru udatan zehar gertatzen diren hirurogeita bat pasarte dira: leku kuttunei uko egin beharretik hasi eta basora itzultzeko prestaketetara. Etapa bakoitzean, xomorro bat, zubi lanak egiteko prest. Denborari buruzko gogoeta xamur eta umoretsu bat da, haurtzarotik zahartzarorako bidaiak, natura eta harremanak birpentsatzeko gonbita. Bizi garen mundu azeleratutik ihes egiteko opari bat, hain ederki idatzia, xomorroak ere polit agertzen baititu.

### SAIAKERA LITERARIOA

ISBN: **978-84-10246-02-7**

ORRIALDEAK: **200 or.**

FORMATUA: **12 x 19**

PREZIOA: **16,90€**

NATURA

ILUSTRATUA

- Ingmar Bergmanen Smultronstället suediar filma inspirazio-iturri hartuta, Julià Guillamon idazle katalanak denborari buruzko liburu bat osatzeko baliatzen ditu xomorroak, natura, harremanak eta bizitza bera beste modu batean pentsatzeko gonbita eginez.
- Bizi garen mundu azeleratutik ihes egiteko, gauza txikiei erreparatzeko eta naturan pausatzeko dei ozen eta eder bat.
- Koloretako ilustrazio ederrak, lehengo entziklopedia ilustratuen antzera, testuetan aipatzen diren xomorroak irudikatzen.



### JULIÀ GUILLAMON

(Bartzelona, 1962) idazle polifazetikoak da, Kataluniako historia kulturala planteatzeko modua berriro duten ikerketen egilea. Esperientzia, memoria eta osasuna uztartzen dituen hiru liburu idatzi ditu: Travessar la riera (2017), Les cuques (2020) eta Les hores noves (2022). Hiruren abiapuntua bere bizikidearen garuneko isuria da, eta asoziazio-joko konplexu bat abian jartzen du, denbora galduaren eta etorkizun partekatua bila. Kulturaren aztertzaile gisa, La ciutat interrompuda (2001) argitaratu du, Bartzelonako hiriarren eraldaketari buruzko erreferentziatzeko saiakera, kontrakultura eta turismo masiboa ardatz dituela. 1939ko Kataluniako erbesteratze literarioaren inguruan egin zituen ikerketen harira, El dia revolt. Literatura catalana de l'exili liburua argitaratu zuen, non Katalunian, Frantzia, Argentinan, Txilen, Mexikon, Dominikar Errepublikan, Kuban eta Venezuelan egindako 42 erreportaje biltzen dituen.



**txalaparta**

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus  
www.txalaparta.eus





## 8. HIRIA

Asel Luzarraga

2024  
MAIATZA

Zortzigarren Hiria aintzat hartzen hasi da Eleder, eta horrek ez dauka atzera bueltarik, onerako zein txarrerako. Baina, nor ote Eleder hura? Historiak ahaztu duen berba aldakorren poeta, kobazulo mistikoko ziberprofeta, hiriaren bihotzaren irakurle eta interpretea, ondoriorik gabeko iraultza txikien itsasargia, pazientzia handiaren jazarlea, zazpi goseteen garailea, Barrio Altoko parkeko zuhaitzik zabalaren gerizpeko predikaria... Bere hitzaren bidez argikunde hedatu nahi duen abere hutsa, finean. Bitartean, auzo ahaztuan zerbait prestatzeari ekin diote: auzokide berriak etorri dira, geratzeko asmoz eta auzoari bizia emateko borondate osoz, eta ez Zortzigarren Hiriko denen gusturako. Eleberri hau Simun Palsu fikziozko idazlearen trilogiako pieza bat da, gure eskuetara iristen den bigarrena, Esan gabe doa eleberriaren atzetik. Asel Luzarragak ohi duen umorea inoiz baino gehiago zuketuz, Sakau herrialdean iraultza piztu aurreko garaia garamatza, elkartzera kondentatuta dauden bi istorio tartekatuz.

### ELEBERRIA

ISBN: **978-84-10246-05-8**  
ORRIALDEAK: **156**  
FORMATUA: **120 x 190**  
PREZIOA: **16,00 €**

**ANARKISMOAK** **HEGO AMERIKA**

**BORROKAK ETA ERRESISTENTZIAK**


- Unibertso utopiko oso bat eraiki du egileak, eta trilogia batean kontatzera dator; hauxe da bigarren alea, nahiz eta eleberri independente modura ere irakur daitekeen.
- Pertsonaiak eta egoerak muturrera eramanda, umore handia dario eleberri honi, eta irakurleari ezagunak egingen zaizkion erreferentziak darabiltza fikziozko istorio gertagaitza izanagatik ere.
- Autoreak, aurretik, hamaika liburu argitaratu ditu, nobelak gehienbat, bai eta gazte literatura ere. Horietako batzuk gaztelaniaz ere argitaratu ditu gero.



### ASEL LUZARRAGA

1971, Bilbo  
Enpresa ikasketetan diplomaduna eta Euskal Filologian lizentziaduna da. Hainbat urtez irakasle lanetan ibili ostean, egun itzultzailea da. 2003. urtean *Hamaika ispilu ganbil* (Labayru) argitaratzeak eta VI. Igartza beka eskuratu izanak idazketa serio hartzera bultzatu zuten. Geroztik, liburu hauek argitaratu ditu: *Karonte*, *Eleberria lantzeko gida* (Antton Irustarekin batera), *Mozorroaren xarma*, *Abaraska*, *Utopiaren itzalak*, *Gezurra odoletan*, *Inoren munduan*, *Bioklik*, *Bahiketa*, *Uzta garaia*, *Malthusen ezinegona*, *Denboran zatika* eta *Esan gabe doa*.

### EGILEAREN BESTE LIBURU BATZUK:




**txalaparta**

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus  
www.txalaparta.eus



**haur eta gazte**  
liburuak



## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

ISBN: 978-84-19319-80-7  
ORRIALDEAK: 64  
PREZIOA: 18,00 €

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

KOMIKIA | KLASIKOAK | NARRATIBA

- Klasiko bat, gazteei egokitua eta komikiaren hizkuntzara ekarria.
- George Orwellen obrarik ezagunena koloretako ilustrazio errealista eta fabula satirikoaren zorrotasun berarekin kontatua.
- Idatzi zuenetik mende erdi baino gehiago eta hainbat gerra pasatu diren arren, autoritarismoari egiten dion kritikak ez du, tamalez, gaurkotasunik galdu, eta bidea ematen du orduko egoera gaur egungoarekin dialogoan jartzeko.

## ABEREEN ETXALDEA

Thomas Labourot, Maxe L'Hermenier, Parada

Itzultzailea: Aiora Jaka

Ingalaterrako etxalde bateko abereek, gizakientzat lan egiteaz aspertuta, matxinatzea erabakitzen dute. Nagusia kanporatuta, abereek berek kudeatutako etxalde bat antolatzen dute, eta erregimen berri bat ezartzen, Animalismoa, animalia guztientzako berdintasuna eta oparotasuna hitzematzen dituen. Berehala, ordea, desadostasunak agertzen dira Elur Bola idealistaren eta haren arerio Napoleonen artean. Azken horrek, Elur Bola traidoretzat jo eta etxaldetik egotzi ondoren, erregimen totalitario bat ezartzen du, txerriak direlarik botere guztien jabe.

Abereentzat, bizitza gero eta gogorragoa bilakatzen da, eta txerriek, pixkanaka, gizakien jarrera desatsegina hartzen dute. Horrela, hasierako utopia demokratikoa endekatzen joaten da; izan ere, "abere guztiak berdinak dira, baina batzuk besteak baino berdina goak".

Animalien fabula honen bidez, George Orwellek distopia bat proposatzen du, erregimen autoritarioen satira bizia.

## THOMAS LABOUROT


Thomas Labourotek *Prophecy* rol-jokoaren ilustrazioan ekin zion bere karrerari. 2004an, Jean-David Morvan ezagutu zuen, eta, harekin batera, *Troll* komiki-bilduma berrartu zuen. Gero, Séverine Gauthier gidoilariarekin kolaboratu zuen *Noodles* eta *Team Galaxy* komikiak sortzeko (Soleil argitaletxea). Bi artistek elkarrekin egin zituzten, halaber, *Washita* (Dargaud argitaletxea) eta *Rue de Sèvres* (Aliénor Mandragore argitaletxea). Jungle argitaletxearentzat ere aritu izan da, *Bohémian Galion* bilduma argitaratuta (Maxe L'Hermenier gidoilari). Reimsen bizi da.

## MAXE L'HERMENIER

Maxe L'Hermenier komiki-gidoilari frantses bat da, oso egile emankorra. Askotariko unibertsoetan idatzi izan du, errealismotik hasi eta umoreraino, zientzia-fikziotik ere pasatuz. 2018an, Jungle Pépites bilduma irudikatu zuen, gazte literatura komiki formatura egokitzen duen bilduma pedagogikoa. Bilduma honen barruan, hainbat izen handi bildu dira; besteak beste J.C. Mourlevat, Pierre Bottero, Victor Hugo, J.C. Noguès eta beste asko. Reimsetik gertu bizi da.

## PARADA

Diego L. Parada marrazkilaria grafiko eta komikilaria espainiar bat da, eta freelance moduan egiten du lan.



## CARNAVAL RURAL. CUENTOS INFANTILES

Bakarne Atxukarro, Izaskun Zubialde, Aitziber Alonso

Joaldunas, Zakuzaharra, Hartza, Damas, Mari Trapu, Momotxorro, Zipoteros... Estos son algunos de los personajes del carnaval rural. Pero, ¿quiénes son? ¿Qué significan? Al igual que otros seres mitológicos, forman parte de los personajes, mitos y leyendas que componen nuestra cultura ancestral. A lo largo de la historia, nuestros antepasados se han basado en la mitología para explicar los diferentes fenómenos que ocurren en la naturaleza, en el entorno y hasta en el mundo. Estos conocimientos e historias han llegado de boca en boca hasta nuestros días, y con este libro también se quiere seguir transmitiendo ese patrimonio cultural

### LITERATURA INFANTIL

ISBN: **978-84-19319-85-2**  
 PÁGINAS: **48**  
 FORMATO: **250 x 250 mm**  
 PRECIO: **19,50 €**

A partir de 6 años

- Una colección de cuentos que pretende acercar los carnavales rurales a ese público que tanto los disfruta y que tantas ganas tiene de que le cuenten historias.
- Las autoras del libro *Mitología vasca, cuentos infantiles* han vuelto a juntarse, esta vez con el objetivo de poner palabras e ilustraciones al carnaval popular y a las criaturas que surgen en esa época del año.
- Un libro ideal para entender la relación entre la mitología y el imaginario colectivo con la naturaleza y los ciclos vitales.

#### BAKARNE ATXUKARRO ESTOMBA

1974 Irun (Gipuzkoa)

Es profesional de la comunicación. Junto a Izaskun Zubialde y Asun Egurza ha publicado desde 2015 más de veinte libros de cuentos infantiles en euskera y castellano, que después se han traducido al inglés y francés. Casi todos ellos están centrados en la temática de la mitología vasca.

#### IZASKUN ZUBIALDE GRAJIRENA

1975 Irun (Gipuzkoa)

Diplomada en Relaciones Laborales por la Universidad Pública de Navarra, actualmente es profesora del colegio de Sunbilla. Junto a Bakarne Atxukarro y Asun Egurza ha publicado desde 2015 más de veinte libros de cuentos infantiles en euskera y castellano, que después se han traducido al inglés y francés.

#### AITZIBER ALONSO PICABEA

1971 Donostia

Es ilustradora de libros infantiles y juveniles. Estudió Bellas Artes en la Universidad del País Vasco, especializándose en la rama de pintura. Realizó estudios de grabado y litografía en la Escuela de Arte de Deba y Arteleku, respectivamente. Imparte cursos y talleres organizados por la asociación Galtzagorri. Con Txalaparta ha publicado *Hamaiketan igerilekuan* y *Mitología vasca, cuentos infantiles*.



Otro libro  
de las  
autoras:



**+XO!**

**txalaparta**



# HERRI INAUTERIAK. HAURRENTZAKO IPUINAK

Bakarne Atxukarro, Izaskun Zubialde, Aitziber Alonso

Hartza, Mari Trapu, momotxorroak, joaldunak, damak, ikazkina... Horiek dira herri inauterietako pertsonaietako batzuk. Baina, nortzuk dira? Zer adierazten dute? Belaunaldiz belaunaldi gure kultura osatzen duten pertsonaia, mito eta kondairen parte dira, mitologiako beste izakien gisan. Historian zehar, gure arbasoek naturan gertatzen diren fenomeno ezberdinak, ingurua eta mundua bera ere mitologian oinarrituz ulertu dituzte. Ezagutza eta istorio horiek ahoz aho heldu dira guganaino eta lan honek ere ondare kultural hori transmititzen jarraitzeko helburua dauka.

## HAUR LITERATURA

ISBN: **978-84-19319-84-5**  
ORRIALDEAK: **48**  
FORMATOA: **250 x 250 mm**  
PREZIOA: **19,50 €**

6 urtetik aurrera

- Herri inauteriei buruzko istorioak, urteko garai jakin batean gure mitologia betetzen duten izakien inguruko ipuinak.
- Euskal mitologia haurrei kontatua liburuaren egileek bat egin dute berriz, oraingoan inauteriei hitzak eta irudiak jartzeko.
- Mitologiak eta iruditegiak naturarekin eta bizi zikloekin duten lotura ulertzeko liburu aproposa.

### BAKARNE ATXUKARRO ESTOMBA

1974 Irun (Gipuzkoa)

Komunikazio arloan aritua da. Izaskun Zubialde eta Asun Egurzarekin batera, haurrentzako hogeit hamar ipuin liburu baino gehiago argitaratu ditu 2015etik, bai euskaraz bai gaztelaniaz, gero ingelesera eta frantsesera itzuli direnak. Ia liburu horiek guztiak euskal mitologiari buruzkoak dira, baina gaurkotasuneko beste gai batzuk ere jorratzen dituzte.

### IZASKUN ZUBIALDE GRAJIRENA

1975 Irun (Gipuzkoa)

Nafarroako Unibertsitate Publikoan Lan Harremanetako diploma eskuratu zuen, nahiz eta irakaskuntza eta pedagogiatik jo duen gero, eta arlo horietako hainbat ikasketa egin ditu. Egundun Sunbillako ikastetxeko irakaslea da. Idazketari dagokionez, Bakarne Atxukarro eta Asun Egurzarekin batera, haurrentzako hogeit hamar ipuin liburu baino gehiago argitaratu ditu 2015etik, bai euskaraz bai gaztelaniaz, gero ingelesera eta frantsesera itzuli direnak. Ia liburu horiek guztiak euskal mitologiari buruzkoak dira.

### AITZIBER ALONSO PICABEA

1971 Donostia

Arte ederretan lizentziatu zen Bilbon. Patxi Zubizarreta, Yolanda Arrieta eta Pello Añorgaren liburuak ilustratu ditu, beste batzuen artean. Galtzagorri elkarteko irakurketa aretoen eszenografiak egiten ditu, eta elkarte horren Marrazioak tailerra eta ilustratzailearen txokoa koordinatzen du. Harkaitz Canorekin batera, albumen sorkuntzarako Bikoteka ikastaroa gidatzen du. Max saria irabazi zuen 2021ean Demode Produzioak taldearen *Kutsidazu bidea Ixabel* musikalaren parte izateagatik eszenografiaren irudiekin.



**Autoreen  
beste  
liburu bat:**



**+XO!**

**txalaparta**

2024  
MARTXOA



## IZAKI BITXIAK

Cristina Sitja Rubio

Itzultzailea: Garazi Arrula Ruiz

Behin batean, basoko animaliek afixa misterioitsu bat aurkitzen dute, hitz honekin: JAIA! Cumbia, saltsa eta arin-arina dantzatu, eta txokolate tarta piloa jaten dute. Baina, etxera itzultzean, hura ezustea! Aterpe zituzten zuhaitzak ez daude, eta ingurune guztia hondatuta ageri da. Nola elikatuko dira? Non egingen dute lo? Izaki bitxiak —jendea— haien bizitokiak txikitu dituzte. Izadiarekin eta animaliekin bizikidetzara harmoniatsua aldarrikatzen du liburu honek, bai eta espezieen arteko hierarkiak ezeztatzen eta munduaren ikuspegi zabala-go bat proposatzen ere

### HAUR LITERATURA

ISBN: 978-84-19319-97-5

ORRIALDEAK: 48

FORMATOA: 230 x 320 mm

PREZIOA: 19,95 €

4 urtetik aurrera

INGURUMENA

ANTIESPEZISMOA

EKOLOGIA

HAUR LITERATURA

TXO!

### Nabarmentzekoak:

- Izadiaren, pertsonen eta animalien arteko bizikidetzara harmoniatsua aldarrikatzen du liburu honek, hierarkia oro gaitzetsiz.
- Cristina Sitja Rubio autore arrakastatsuen albumik ezagunena da, aurrez hainbat hizkuntzatan argitaratu dutena.
- Eskuz egindako letrak eta orrialdeak osorik betetzen dituzten arkatzezko irudi ikusgarriak ditu.



**CRISTINA SITJA RUBIO** Caracasen jaio zen eta Arte Ederrak ikasi zituen Montrealen. Geroago koloretako argazkigintzan eta inprimaketan espezializatu zen. 2007an, ilustratzaile bihurtzea erabaki zuen, eta harrezkero hainbat ilustrazio liburu arrakastatsu sortu ditu, esate batera, *Izaki bitxiak* (jatorrizkoan, *Etranges créatures*, Éditions Notari, 2013). Cristina Berlin eta Bartzelona artean bizi eta lan egiten du



**TXO!**

txalaparta

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus  
www.txalaparta.eus



2024  
MARTXOA

# ZENBAT LO

Iraitz Lizarraga Gomez, Iزارo Lizarraga Galdos

Zenbat lo loreak usteltzeko.  
Zenbat lo begirik bildu gabe.  
Zenbat lo zurekin amesten.  
Zenbat lo harresia zeharkatzeko.  
Zenbat lo zu besarkatzeko.  
Zenbat lo ur freskotan oinak bustitzeko.  
Zenbat lo?

Haur batek kartzelarekin eta preso duten amarekin zer harreman duen kontatzen du liburu honek, Nekane Txapartegiren eta bere alabaren historia oinarri hartuta. Afektuak eta jolasak hala testua nola ilustrazioak blaitzen dituzte gaztetxo zein helduentzako obra poetiko eder honetan.

## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

ISBN: **978-84-19319-98-2**  
ORRIALDEAK: **40**  
NEURRIAK: **230 x 230**  
PREZIOA: **16,00 €**

GAZTE LITERATURA

LIBURU ILUSTRATUA

HAUR MOTXILADUNAK

ESPETXEA

- Haur batek kartzelarekin eta preso duten amarekin zer harreman duen kontatzen du liburu honek, Nekane Txapartegiren eta bere alabaren historia oinarri hartuta.
- Haurren mundua eta helduen mundua nahastu egiten da gaztetxo zein helduentzako obra eder honetan.
- Testu poetikoa eta ilustrazio iradokitzaileak ibaia bezala isurtzen dira, eta gogoetari eta ametsari bide ematen diete.



### IRAITZ LIZARRAGA GOMEZ

Antzerki ikasketetan doktoretza egina du, eta gorputz adierazpena, antzerkigintza eta zirku akrobaziei lotuta egin du bere ibilbidea. Aktore lanetan aritu da hainbat konpainiatan, esate batera, Pikor, Txalo, Artedrama eta Trapu Zaharra taldetan, baita Gure Zirkuan ere aireko akrobata gisara. Zuzendari eta gidoilari lanetan ere aritu da, esate baterako Lankuk ekoitzitako "Teilatupean" obran.



### IZARO LIZARRAGA GALDOS

Txikitandik ibili da sormenaren zirrikituak arakatzen. Bide horretatik egin zituen ikasketa formalak: Arte Ederrak eta Artearen historia lizentziak lehenik eta Diseinuko goi ikasketak gero; orduetik, bere kabuz marrazten jarraitu du eta sorkuntzaren unibertsoan kokatu du bizi-esperientziaren haria. Ogibidez, beti aritu da sormenari loturiko jardunetan. Azken urteetan, ipuinen eta album ilustratuen munduak liluratuta, haur literaturarako ilustrazioak sortzeari ekin dio.



**txalaparta**

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus  
www.txalaparta.eus



2024  
APIRILA



## DARDARAK

Idazlea: Karmele Mitxelena

Ilustratzailea: Irene Irureta

Jatorrizko ideia: Joana Aurrekoetxea

Maritxu eta Katalina teiltupe berean bizi dira. Zeru horren babesean, zimurrak eta urteak zenbatzen dizkiote elkarri. Bietatik dituzte ugari. Azkenaldian, ordea, zeru berak dar-dar egiten du maiz, eta, lurrikarek bezala, haien barrenean erreplikak ditu dardara horrek. Teiltupe osoa hotzikarak hartzen duen egunera arte.

Bi emakume adinduren arteko maitasuna eta elkar zaintza du ardatz liburu honek, bai eta "etxe" esaten ahal zaion aterpe baten beharra aldarrikatzen ere.

### HAUR LITERATURA

ISBN: 978-84-19319-99-9  
ORRIALDEAK: 40  
FORMATOA: 250 x 240 mm  
PREZIOA: 16,00 €

6 urtetik aurrera

HAUR LITERATURA

TXO!

#### Nabarmentzekoak:

- Bi emakume adinduren arteko maitasuna eta elkar zaintza du ardatz.
- "Etxe" esaten ahal zaion aterpe baten beharra agerian geratzen da.
- Testu labur eta poetikoak eta orrialde osoko irudi koloretsuak elkarren osagarri dira.



#### KARMELE MITXELENA

1988, Oiartzun (Gipuzkoa) Lehen hezkuntzako irakasle ikasketak egin zituen EHUn, eta ondoren Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikari titulua, Haur Hezkuntzako gradua eta Hezkuntza Psikomotrizitateko ikasketak. Bere liburuen artean, *Erakuslehioan* (Erein), *Haragizko mamuak* (Elkar) eta *Marrubizko uda* (Elkar).



#### IRENE IRURETA

Zumaia (Gipuzkoa) Ilustratzailea eta Arte Ederretan lizentziatua. 2016. urtean Irrimarra bikote sortzaileetako bat Karmele Gorroñorekin batera. Albur ilustratuak, kartelak, prentsarako irudiak eta horma-irudiak ditu bere lanen artean.



**+XO!**

**txalaparta**

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus www.txalaparta.eus





2024  
MAIATZA



## HEMEN ETA ORAIN

Laura Brand, Freya Hartas (ilus.)

Itzultzailea: Amaia Apalauza

Gure inguruan, natura etengabe ari da aldatzen, hazten...eta lanean. Egunero, ordutik ordura, aldaketa magikoak gertatzen dira gure begien aurrean, nahiz beti ez den erraza ikustea...Gozatu naturari buruzko hogeia istorio hauekin, eta hartu horretarako behar den denbora guztia. Gero, zoaz esploratzera...eta ikusiko duzu zer gertatzen den hemen eta orain.

### HAUR ETA GAZTE LITERATURA

ISBN: **978-84-19319-82-1**  
ORRIALDEAK: **52**  
NEURRIAK: **235 x 295**  
PREZIOA: **21,00 €**

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

ZIENTZIA ETA NATURA

- Naturari buruzko 20 istorio, patxadaz bizitzeko, begiratzen ikasteko eta gauzarik txikienkin liluratzeko.
- Freya Hartas eta Laura Brand egileen liburu arrakastatsu honek dei egiten digu presente egotera eta hemen eta orain bizitzera, azeleragailuaren pedalaz ahaztuta.
- Testu deskribatzaileek ilustrazio ederrak dituzte lagun, hala izaki nola paisaia eta landare, inguruan ditugun natura horren guztiaren adierazle.



#### LAURA BRAND

Laura idazlea eta ilustratzailea da. Ingalaterrako landa-eremuan bizi da, bere familiarekin eta animaliekin. Artearekin esperimentatuz eta sormena landuz lan egiten du, eta haur zein helduentzako ikastaroak ematen ditu. Artea eta naturarekiko lotura uztartzen ditu, sinetsita baitago hori dela buru-osasunaren eta ongizatearen funtsa.



#### FREYA HARTAS

Freya ilustratzaileak haurrentzako liburuarentzako irudiak egiten ditu. Bristol hiri zirrargarrian bizi da, bere bikotekidearekin eta Katsu katu beltz zaharrarekin, eta bulego partekatu batean lan egiten du, atsegina bezain nahasia. Ilustrazio ikasketak egin zituen Falmouth Unibertsitatean, eta ohorezko matrikula eman zioten, 2014an. Pertsonaia, animalia eta munstro dibertigarriak asmatzea eta haiantzako fantasiako munduak sortzea maite du. Liburu ilustratuak eta haur helduagoentzako liburu klasikoetako irudiak marraztu ditu.



**+XO!**

**txalaparta**

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eu  
www.txalaparta.eu



*Mundua aldatzen  
duten pertsonak  
aldatzen dituzten  
liburuak*

*Libros que  
cambian personas  
que cambian  
el mundo*



TXALAPARTA ARGITALETXEA  
Kale Nagusia 63, Iruñea 31001  
948 703 934  
[web@txalaparta.eus](mailto:web@txalaparta.eus)